

APP eta cruiseinean ligatzeko segurtasun neurriak



Ikusgune
www.ikusgune.eus



araba álava
fora erkandia diputación foral



Zaindu zaitez!

Azkenengo urteetan ligatzeko eta sexu harremanak izateko modu anitz agertu dira. Eskuhorri honetan ligatzeko aplikazioetan eta cruisingean sexu harremanak bilatzen dituzten pertsonari segurtasun jarraibide batzuk ematea du helburu.

App-etan edo cruising espazioetan ematen den ligoteoa eredu modu tradizionalago edo normatiboago batean emante den ereduaren bezain bortitza zein sana izan daiteke. Beraz, ligatzeko modu hauek ez ditugu kriminalizatu behar, baizik eta egoera bortitzak saihesteko segurtasun nozio batzuk ematea.

Hemen jasotzen ditugun jarraibide sinpleek hamaika aldagai izan dezakete. Zuhurtziaz ibili eta ez ezazu dena jokatu beroaldi bakarrera. Gure harremanekin disfrutatu behar dugu beti.



ligatzeko APP-ak

Gure bizitzako edozein ekintza bezala, ligatzeko aplikazioen erabilerak hainbat arrisku ditu, hauek murriztu ahal ditugu momentu eta egoeraren arabera segurtasun neurri batzuk hartuz. Ez gara paranoian erori behar, baina beroaldi bategatik samintasuna izatea ere ez.

APP-aren bestaldean nor dagoen ez dakigula argi izan behar dugu, beraz, gomendagarria da erabakitzea zein den emango dugun informazioa, zein ez dugu emango, zer konpartituko dugun (argazkiak, helbideak,...), hau guztia gure kontra joka dezake etorkizunean. Ez ahaztu zabaltzen dugun materiala sarera igo daitekela eta gero hori ezabatzea ezinezko bihurtu daitekela.

Identitatearen usurpazioa edo argazkien zabalpena delitua izan daiteke. Hau saihesteko, hoberena gure burua zaintzen ikastea da. Batzuetan estortsio saiakerak gertatu dira: Gure inguruko pertsonari gure sexu-jardunbideak edo nahiak jakinaraztea, diru kopuru bat ordaindu ezean. Kasu horietan, komeni da elkarrizketen eta profilen pantaila-harrapaketak egitea. Zenbat eta informazio gehiago izan, orduan eta gehiago lagunduko du etorkizuneko ikerketa batean.

IKUSGUNEtik gerta daitekeenaren inguruan ohartari nahi dizugu. Ez dugu beldurra sartu nahi, eta are gutxiago desio edo sexu praktikak kuestionatu. Baina, autozaintzara eta arduraz jokatzera dei egiten dugu. Jardunbide egoki gisa, zure konfiantzazko pertsona bati, norekin geratu zaren eta non duzun hitzordua, informatzeko ohitura har dezakezu, . APP batzuek zure konfiantzazko pertsonari esteka bat bidaltzeko aukera ematen dute.

Topaketa bat gertatzen bada, garrantzitsua da ez ahaztea, edozein momentutan eta edozein tokitan, topaketarekin aurrera ez jarraitzea erabaki eta alde egin dezakezula.

Gertakari LGTB+fobikorik sufritzekotan jar zaitez gurekin harremanetan 633 309 653 edo www.ikusgune.eus bitartez.

cruising

Cruising-a espazio segurua izan behar du, eta hori horrela izatea espazio hori erabiltzen dugunon ardura da. Gainera espazioa zaintzeaz eta garbi mantentzeaz lagundu behar dugu, zaborra jaso (paperezko zapiak, kondoaiak, bilgarriak...) eta tokiko landare eta animaliak errespetatuz.

Cruising-ean jende gehiago topatuko duzu. Batzuk ohiko erabiltzaileak izango dira, eta sexu harremanak izateaz aparte elkarrizketak mantendu ahal izango dituzu. Edozein momentutan laguntza behar izatekotan (irainak jasotzen dituzulako, erasoak, jazarpenak, kotxearekin arazoak dituzulako...) balioarriak izan daitezke harreman hauek, gainera beste erabiltzaile batzuen esperientziak konpartitzeko aberasgarria izan daitezke.

Telefono mugikorra badaukazu gomendagarria da soinean eramatea edozein momentutan laguntza eskatzeko beharra baldi baduzu.

Cruising-aren praktika legala dela jakin behar duzu, beti ere sexu harremanak agerian mantentzen ez diren bitartean. Cruisingean edozein motatako LGBTBI+fobia pairatzen baduzu eta poliziaren aurrean salaketa jarriko baduzu, deklarazioa hartzean garrantzitsua da cruising-gune batean zeundela esatea, hau gorroto-polarizazioaren adierazle bat da, gorroto-delitu gisa tramitatzen lagun dezakeena.

Gertakari LGBTBI+fobikoren bat sufritu ezker jar zaitez gurekin harremanetan (633 309 653 edo www.ikusgune.eus)



norbaiten etxera goazenean

Seguruenik esperientzia on bat izango duzu. Hala eta guztiz ere, oso egokia izan ohi da norbaiti ezagutaraztea nora goazen (, era berean, etxetik ateratzean hau ere kontatzea gomendagarria da.

Norbaiten etxera joateak ez du esan nahi haren desioak betetzera behartuta zaudenik, nahiz eta aurretik txateatu izana. Beti eta edozein momentutan topaketarekin amaitu dezakezu, damutu zaitezke, gustoko izateari utzi edo sinpleki ez duzula aurrera jarraitu nahi.



norbait gure etxera gonbidatzen dugunean.

IKUSGUNEEn ezagunak dituguk esperientzia gehienak egokiak izan dira, baina inoiz lapurretak gertatu direla ohartarazi behar dugu.

Toki neutro baten geratzea gomendatzen dizugu, horrela zure helbidea ematea ekiditzen duzu. Bakarrik bizi bazara informazio hau ez ematea erabaki dezakezu. Adi egon baliogarriak diren gauzekin agerian badaude.

Beste pertsona ezezagun baten etxera goazenean bezala, konfiantzazko norbaiti abisatu diezaiokegu hitzordua izango dugula gure etxean, eta amaitzean ere gauza bera esan diezaiokegu. Esperientzia txarra izan baduzu, horrek lagun diezazuke konpainian gertatutakoa kudeatzen.

Topaketara agertu den pertsonarekin harremana ez baduzu jarraitu nahi esaiozu edozein momentutan.



633 309 653

Astelehenetik ostiralera 09:00tik 17:00etara



info@ikusgune.eus

Halaber, salaketa bat egin dezakezu gure online salaketa-zerbitzuaren bidez

www.ikusgune.eus web gunean.



@ikusgune.behatokia



@ikusgune